



UDALAREN ADIERAZPENA, BATERAGUNE AUZIAREN EBAZPENAREN AURREAN

Gaur, Espainiako Auzitegi Gorenak, Bateragune auzian epaitu eta kartzela zigor urte luzeetara kondenatuak izan ziren Arnaldo Otegi, Rafa Diez, Arkaitz Rodriguez, Sonia Jacinto eta Miren Zabaletaren aurkako sententzia berretsi du.

Estatu espainiarrak, beste behin ere, Euskal Herrian ireki den fase politiko berriaren aurkako norabidean urratsak ematen jarraitzen du. Aukerak ireki eta bide berrietan sakondu ordez, oztopoak jartzen jarraitzen du Madrilek. Herri honetan urte luzeetan desio izan dugun benetako bake eta demokraziarako aukera inoiz baino irekiagoa dagoenean dator ebazpen hau eta herritarren gehiengo zabalak ez du, ez ulertzen ez eta onartzen ere

Izaera politiko nabarmena duen epaia eman du Auzitegi Gorenak; Herri honetako gehiengo politiko eta sozialarentzat agerikoa izan zen ia zko ekainean buruturiko epaiketak eta osteko epaiak, herri honetan ematen ari diren urratsak oztopatu eta baldintzatzea zuela helburu.

Bost euskal herritar hauen aurkako zigor gogorarekin, indar erakustaldia burutu du Estatu espainiarrak, errepresioan oinarrituriko erakustaldia. Azken urteotan aldaketa nabarmen eta sakonak izan dituen errealtate politiko baten aurkako beste indar erakustaldi bat izan da Gorenaren azken ebazpen hau. Euskal jendartearen gehiengo batek, bakea, justizia eta demokrazian oinarrituriko etorkizuna ikuskatzen duen agertoki baten aurkako erantzun errepresiboa.

Idea politiko guztien defentsa eta antolaketa askeak bermatuak izan behar dutela aldarrikatzen du euskal jendartea. Ondorioz, egoera berri honetan ez dago lekurik, behin betiko eten behar dute, bake eta aterabideen aurkako agenda politiko eta judizialek.

Udal honek, beste behin ere, Arnaldo Otegi, Rafa Diez, Miren Zabaleta, Arkaitz Rodriguez eta Sonia Jacintoren berehalako eta baldintzarik gabeko askatasuna exijitzen du.

Udal honetatik, beste behin ere, gatazkaren konponbide demokratikoarekiko gure konpromisoan berresten gara, bai eta bide horretan egun espetxeraturik dauden lagunek egindako ekarpenaren aitortzan ere.

Euskal Herrian, 2012ko maiatzaren 9an

INAKI AGIRREZABALAGA ALKORTA

BILDU.

DECLARACIÓN DEL AYUNTAMIENTO ANTE LA SENTENCIA DEL CASO BATERAGUNE

Hoy el Tribunal Supremo de España ha corroborado la sentencia en contra de Arnaldo Otegi, Rafa Diez, Arkaitz Rodriguez, Sonia Jacinto y Miren Zabaleta, personas que fueron condenadas a muchos años de cárcel por el caso Bateragune.

El Estado Español, una vez más, va en dirección contraria a la nueva fase política que se ha iniciado en Euskal Herria. En lugar de mostrarse abierto a otras opciones y de iniciar nuevas vías, Madrid sigue poniendo trabas en el camino. Esta sentencia llega en el momento en que la paz y la democracia reales están más cerca que nunca y un amplio sector de la ciudadanía ni la entiende ni la acepta.

El Tribunal Supremo ha emitido una sentencia de marcado carácter político; Para la mayoría social y política de este país ha quedado de manifiesto que el juicio celebrado el pasado junio y la posterior sentencia tenían como objetivo poner piedras en el camino emprendido por este país.

Con las duras sentencias aplicadas a estas cinco personas, el Estado Español ha hecho una demostración de fuerza basada en la represión. Esta última sentencia del Tribunal Supremo ha sido otra demostración de fuerza contra una realidad política que en los últimos años se ha transformado profundamente. Una respuesta represiva contra un futuro escenario basado en la paz, la justicia y la democracia que es lo que desean la mayoría de los vascos.

La ciudadanía vasca reclama que la defensa de toda idea política y el derecho de organizarse libremente deben de estar garantizados. De modo, que ante esta nueva situación, las agendas políticas y judiciales que van en contra de la paz y la solución no tienen lugar y deben cesar de una vez por todas.

Este Ayuntamiento solicita una vez más la libertad inmediata e incondicional de Arnaldo Otegi, Rafa Diez, Miren Zabaleta, Arkaitz Rodriguez y Sonia Jacinto.

Desde este ayuntamiento ratificamos una vez más el compromiso con la solución democrática y con el reconocimiento a la aportación hecha por estas personas que están encarceladas.

